

KALEKO URDANGA

Peio Enbeita

Gernika-Lumo

«Galtzada nagusia 48, 3. A». Heldu bezain laster kendu dizkit gainean nituen kapa guztiak, bera dagoeneko galtzontzilloetan dagoenez ez dut lan handirik izan. Ez dauka tontakerietan ibiltzeko gogo handirik, ohe gainean etzatearekin batera, bere tripa handiak ezkutatzen duen zakil ñimiñoa-ekin jolas egiteko eskatu baitit. Ikuste hutsarekin gogo guztiak joan zaizkit baina, tira, banekien zer etorriko zitzaidan *mundu* honetan murgildu nintzenez; horregatik, keinurik egin gabe aho barruan sartu dut eta begiak segituan itxi, horrek egiten nabilena ezabatuko balu bezala...

Oraingoan zorte handia izan dut, minutu pare batez mingainarekin jolastu ondoren amore eman baitu. Egia da urteak gainean dituela nabari zaiola, baina harrotasun pixka bat eman dit, dirua berak eman arren, kontrola neure eskuetan dagoen sentazioa, alegia. Artzain batek bere ardia jezten duenean bezalaxe, hurrengoaren zain. Artalde baten trajez jantzitako artzain diruduna sentitzen naiz. Horixe da nire bizitza: egun batean jetzi, bihar

berriz eta etzi zer dakit ba, agian lan bikoitza... Min ematen didan arren aitortzen dut, hasieran jolas soila zen, «mila mozkorren azkena...», sexu-harremanak eta dirua, hots, gozamina. Egun batean begiak ireki eta egindakoaren muntaz ohartu nintzen arte, guztiz sinesgaitza, ezustean harrapaturiko belarrondokoa. Ez zen berriz eguzkia altxatuko egunsentietan, ez behintzat niretzat, hondoa jo bainuen, urrunegi iritsi nintzen. Aurrerantzean, preso nintzateke, etorkizunaren gatibu, geratzen zaidan bizitza aurretiaz idatzirik balego bezala. Piramide forma du honek guztiak, eta ni, piramide horretako behe solairuan, ez da ez igogailurik ez eskailerarik ageri. Aitortzen dut: dagoeneko behera begira irte ten hasia naiz kalera, inongo esperantzarik gabe, badaezpada ere otoitz eginez atarian, hemendixe aterako nauen mirariaren zain.

Ez naiz oraindik aurkeztu baina, ez daukat nitaz askoz gehiago esaterik. Ikasketak utzi nituen kaleetan murgiltzeko, erabaki horren ondorioak nabarmen dira neure begietan. Kokaina eta *anfeta* asko; boligrafoa zer den ere ahaztu zait. Kale-izkinetik erakutsi didate baztertuta bizitzen, kale-izkinetan ikasi dut zaurituta bizitzen.

Kaleko urdanga baino ez naiz, emagaldua, bazuentzat, zuretzat, agian, prostituta hutsa.

Gaurkoak ez ditu eguneroko gorroto eta mespretxuak islatu, ez baitu asko tardatzen hormaren kontra joko zaituen harropuztutuz ergel baten deiak. Momentu horretan ohartzen da bat oraindik azpian dagoela, gora begiratu eta behe-lainoaren gainetik dagoela zure jomuga den tontor hura.

Baina nola ez, ezin dezaket ezetzik esan, guztia ondo doa zure ametsetako gelara sartzen uzten dizunean, trajez jantzitako gizona da, itxurosoa, oso, eta guapoetan guapoena. Une horretan burua korapilatu zait, ez dut ulertu nola izan dezakeen nire beharra... Atzamarrera begiratu eta hara hor ezkon-eraztunaren marka; kendu duen arren, ezin da ezabatu zizelkaturik daraman arrastoa. Dena den, aldean daraman harropuzkeria horrek, bere tipo itxurosoarekin batera, morbo pixka bat sartu dit; normalean leunak ditudan bihotz-taupadak gorabehera, lanbide hau aukeratu izanaren amorruz behingoz egongo ez naizeneko eguna. Erabakia hartua dut: gaur buruan nekarren pisu guztia alde batera utzi eta ni neu izaten saiatuko naiz.

Inuzente hutsa! Zer pasatu da nire burutik? Ihes egin nahi dut. Kontua da, greziar jainko batek zizelkatua dirudienaren gorputzaren atzean, ez dakit nola azal nezakeen, menderatzaile nazkagarria baino ez dela, bera ondo sentiarazteko jostailutzat erabiliko duen emakumeren baten beharri-zana duela, eta gaurkoan neuri tokatu zait bere premia hori asetzea.

Gorrotoa, burutik atera ezinaren ondorioa. Ispilu aurrean aurkitu nahian, ez naiz inondik ere ageri. Eta egunen batean neure buruarekiko guda irabaziz gero, hortxe izango da neure sorbalda, tatuaturik gelditu zaizkidan orbainak. Horiek, horiek joango ez ote diren ustean nabil, «eta nabilelako nabil hain neke...».

Iritsi da berriz gaua, eta egunean zehar jasotakoak leher egin du, gomekin gertatzen den bezala, luzatzen ibiliz gero halako batean..., agur!!! Paper zuri baten aurrean ateratako guztia nola neure begietan malko bihurtzen zen jakitun izanik, lumaz idatzitako hitzak ere negarren itsasoak disolbatu ditu. Ohean sartu eta ez daukat eguna luzatzea merezi duen txokolatina, liburu edo abesti xume bat ere.

Gaur egun berria dut, baina ez beste edozein egun. Badakizue jada nire bizitzan egun berri bakoitza Euskal Herrian neguan egiten duen ekaitzegun bat baino ilunagoa izatera kondenatuta dagoela, baina gaurkoan... Egun berezia da, beltza den horretan ageri den argi-distira. Bada mutiko bat noizean behin nire beharra sentitzean dei egiten didana, ni baino pare bat urte zaharragoa beharbada, mutiko ximplea lehen bistan. Mmmm, nola da? Gogoratu nahian nabil, ziur ez baina, Mikel duela izena esango nuke, edo horrelako zerbait entzun nuen noizbait. Besterik gabe, nire bezero gustukoen da. Baliteke ilusioa egiten didan bisita bakarria izatea, horrekin guztia esanda dago; desberdina da.

Atetik pasatu bezain laster etxean izango banintz bezala sentiarazten nau, eta ez nau bera baino gutxiagotzat hartzen; bai, horixe pasatzen zait besteekin, sabanako lehoientzat inpalak diren eran. Berarekin dena da berezia, esango nuke lanak dakarren beharretik at doala, *behartu* gabe ere egingo nuen hura, horixe da Mikel. Ez dakidan arren, niretzat putetan dabilen gizona baino gehia-

go da. Bakarra ez naizen arren, bere gustukoena izatea espero dut, badakidalako jada nire lankide batzuekin dabilela, horregatik gutxitan izaten garen horietan gauza zehatz batzuk baino ez dizkit eskatzen eta marra gorri hura zeharkatzeaz gaude-nean... Kito!, bukatu da gaurkoz. Hori gertatzera-ko gure azalen igurtziak txinpartak aterata daude eta ez dut gehiago eskatzen, nahiko izaten da irri-barre bat bere etxetik irtetea, igogailuko ispiluan ageri naizenean. Gogoan dut azken bisita, bisita berezia izan zen hura, hainbestetan desio izan nuen hura egia bilakatu zen.

Txikia nintzela gabonetako umeen parkean egoten ziren zezen mekanikoen antzera, bere gainera igo nintzen... Hura bai gozarena! Zerutik begira dudan nebak esaten zidan bezala: «Hainbatekin egin duzu larrutan, baina horietako zenbat maite izan duzu?» Galdera itzela deritzot, eta horrekin konturatu naiz balitekeela Mikel maitatzen hasia izatea, nik nahi ez nuen arren. Gainera azken bisita horrek ilusioa hirukoiztea ekarri zidan, besteekin egiten zuena neurekin ere egiten hasia zelako eta orain besteen lekua neuk ere izango nuelako; eguzkia ezkutatzean amets egiteko arrazoia. Halaxe izan da, kontrola galdua naiz eta horren adibide dira goizean blai eginda ageri diren kule-roak. Egunsentiak ordea estresa baino ez du ekarri berekin, eguzkiak inondik inora ageri gabe jarraitzen du gaur, atzo eta bihar... Eguraldiaren aurreikuspenak ez dira *trenaren burdinbidetik* irteten, mundu honek irentsi zizkidanen berberak baitira.

Tunel bukaerako argia berriz estaltzen hasia balitz bezala, buruak Zeusekin bat egin balu bezala ageri da eguna, iluntasuna gehi ekaitza eta emaitza; izara artean gelditu nahia. Igeldoko parkean dagoen errusiar mendiaren antza hartzen nabil: goian nai-zen bakoitzean, ohartu baino lehen berriz ere behean... Ba al dago neure burua koka dezakeen iparrorratzik?

Astea bukatutzat eman dugu pisukideok, etorri dira piramidearen gailurrean dauden harroputzak ekinez eta negarrez lortu dugun geurea den hori eramatera; lotsagabe halakook! Beraien tokian banintz, aurpegia ere eroriko litzaidake lotsaren lotsaz. Dena den eta bizi dugun egoera ikusita, ez zait aste txarra iruditu arlo pertsonalean, atera kontuak nola izan ohi diren nire asteak... Europako iparraldean lau asteguneko lanaldiei buruz eztabaidan dabilzan bitartean, *asteburu* deituriko hura ezagutzear nago ni oraindik. Arratsaldea solasean igaro ondoren, nuen poz txikia ere joan egin zait lankide malurusen kontuekin. Bata jipoitua izan dela salatuz, besteak ez dakit norengana joan behar izan duela, eta horrela eguzkia gutxika-gutxika ezkutatzen joan den arte. Normaltzat hartu behar izateak hil egiten gaitu. Guztiz gizagabea da! Ahizparen eta euskarri bihurtu zaizkidaneren hitzak entzutean, ondorio bakarra atera dezaket: baliteke honezkero ohartu izana baina zoritxarrez bada ere, jostailu hutsak gara guztientzat. Bueno ez naiz gustura gelditu esandakoarekin, baliteke Mikel libratzea... Kasuak kasu, nabarmena da gaur egungo gizartean jasaten

dugun errespeturik eza, eta are gehiago onarpen-mailarik eza.

Ez dut hausnartzen jarraitzeko denborarik izan, halako batean leihotik sartu diren argi-izpi urdinek egongelan gauden bost emakumeon ideiak deuseztatu dituztelako. Eta aurretik eginiko gogoeta guztiek sirenen zaratekin bat eginez ihes egin baitute. Bai polizia da, ertzainak hobeto esanda, gure artean *zipaio* edo *txakur* izendatzeaz ohituta banago ere. Ezustean harrapatu gaituzte, eta hasiera batean lasai asko bagina ere, berehala menderatu gaitu urduritasunak guregana datozela ohartzean. Lehendabizi, itxurak berak soilik harritu nau, furgonetatik ekipo osoa daramatela jaitsi baitira, 1990eko hamarkada gogoraraziz. Ez zaizkit beraien portaerak gustatu, harroputz sartu baitira, zarata ateratzearekin batera, egongelan gauden bost emakumeok hormaren kontra jarritz. Badirudi indarra erabiltzeko beldurrik gabe datozela, eta bitartean gu, negar artean, arrazoi bila galdezka. Ahaleginek ez dute saririk izan eta banan-banan ertzainen kotxeetan sartu gaituzte, lepoaldean ditudan eskuburdinek eskumuturrak estutzen zizkidatela. Amaigabea egin zait bidaia, gertatzen ari dena errealitatea dela ohartzeko denbora nahikoa izan dut eta, halako batean, hara non Guardia Zibilen kuartel nagusiaren aurrean agertu nintzen. Ate bikoitzetik hainbat *pikoleto* atera eta ertzainek «*aquí vienen, todas vuestras*» esan ondoren, bira egin dute eta *berdezko banda* horren eskuetan geratu naiz, literalki. Behin kuartelera sartuta, ziegak dau-

den tokira eraman gaituzte. Lagun birentzat presatuak direnez, hiru ziega desberdinetan sartu gaituzte, bata bestearen ondoan; nola ez, niri hirugarren ziega suertatu zait, hau da, bakardadean.

Denbora luzea igaro genuen bertan; erlojua geldituko balitz bezala, paretetan idatzitako oroitzapenei zentzua bilatu nien. Antsietateak irentsi ninduenerako iritsi ziren bi guardia, atea ireki, baina ez, ez nintzen libre, lur azpian zegoen gelara eraman ninduten, isolaturik: egurrezko aulki xume bat baino ez, hiru metroko lodierako paretez inguratuta. Aulkian ere ezin eseri nintzen, neure dardarek aulkiaren hankek baino indar handiagoa zutelako. Bertara heldu orduko, nire buruan atxiloaketaren arrazoiaren ideia bat egina nuen. Ekialdetik ekarritako urdangak garela, ilegalak garela atzerrian baikaude, droga-kontsumoa, eta abar, eta abar... Orduantxe hasi ziren galdera guztiak; pentsatu nuen, norbaitentzat ez ginela batere atseginak izango eta deiren bat egingo zutela gutaz ohar-tarazten. Nola iritsi nintzen, noiz, zer egiten nuen... Erantzun guztiak zekizkiten arren, nire konfesio edo horrelakoren baten bila zebiltzan, bide bakarra hitz egitea zela aitortuz. Espero zutena baino sendoagoa nintzen antza denez, eta kolpe eta irainak erabiliz ni ahultzen saiatu ondoren, esku-hutsik jarraitzen zuten. Beste guardia zibil bat etorri zen elektrizitate-deskarga emateko traman-kuluarekin; giltzurrunen parean gerriko hura jarri eta erantzunik jasotzen ez zuen galdera bakoitzeko bere telekomandoaz baliatzen zen. Negar egitea

ere kostatzen zitzaidan une haietan. Kokoteraino zeuden erantzunik ez jasotzeaz baina, nik argi neukan neure duintasunak tratu txarren emaile haiek baino gehiago balio zuela, azken bihotz-taupadak jo arte uko egingo niela. Agian nik ez nuen neure gorputza zen bezalakoa berriz ikusiko ispilu baten aurrean, baina gaur ez, gaur galtzaile irtengo ziren beraiek ere. Azkenean, nazkaturik zeudela, kolpe guztien artean biluzten hasi ziren... Larrugorrian eta hotzak uzkurtuta bukatu nuen.

Behin puntu horretara iritsita, azken aldiz nire gorputzaren jabetzaz gozatu ziren, eta ostean banan-banan gelatik irten. Azkenak «*una sorpresa te espera*» esan zidan eta konortea galtzear nengoen arren, «*comandate Miguel, adelante*» edo horrelakoren bat entzun ote nuen nago.

Ez, ez da posible. Ametsa dirudi. Hara non *Miguel* komandantea Mikel neure amodioa den! Ez dut ezagutzen bertsio hau. Hainbestetan nire jostailua izandako *hura* atera du segituan, nire ugazaba bilakatuz. Baina hau ez da lan-kontua, ez du nire onarpenik. Noiz pentsatuko nuen nik Mikel guardia zibila zela?! Nor eta, ni bortxatzen ari den bortxatzailea! Ez da nire begi handi eta moreetara begiratzeko gai izan, oilobusti halakoori! Nazkagarri askok sartu izan dit zakila, ez dut bizitza erraza izan, baina hau, hau beste maila bat da. Mikelekin orain arte gertatutako guztia fartsa izan ote da? Baliteke bere misioaren parte izana edo zer dakit nik, ez deritzot pentsatzen hasteko unerik aproposena, egia esanda, baina egunen batean

egia izango dut eskura, hemendik irtetea horixe izango da nire helburua, bizirik irtetea lortuz gero, noski. Burua galtzen hasia nintzen, inor ez bezala maite bainuen. Nire etsai handienari ere desiratu-ko ez niokeen eguna.

Zenbatetan begiratu izan dugu beste alde batera, Nekane Txapartegi bezalakoak hizketan entzun izan ditugunean? Bat ez da arazoaz ohartzen, arazoa bizi duen arte, eta hara hor, bada, aldatu beharreko lehen gauza; uste ez dugun arren, hor dira torturak XXI. mendean, hor dira hainbat eta hainbat emakume bortxatu, gutxien espero ditugunak batzuetan... Ez du axola, baina hortxe jarraitzen dute, kaleetan, guk beste alde batera begiratzen dugun bitartean.

Hementxe naiz berriz ere, korridore estu hone-tatik zehar, ziegara bidean berriz ere. Mikelek ni giltzaperatu bitartean, «*mañana más y mejor, y así hasta que tengas respuestas*» esaldia esanez mehatxatu nau, zeldaren paretaren kontra eserita utzi nauen bultzadarekin batera. Kulerook, odolez blai eginda, hau bada, bai, Itsaso Gorria! Egun pare bat pasatu da, hiru ere agian, ez naiz ezertaz ere ohartzen. Konortea galtzear nago, ezin dut horma ilun eta hotz hauetaz inguraturik lo egin, eta egunean-egunean ematen didaten ogi-puskarekin neuri zutik eusteko esperantza baldin badute, gaizki dabilta. Halako batean norbait niregana datorrela nabari dut, begiak ere ia ireki ezin ditudan arren, guardia bat datorkidala esango nuke, mantxa berderen bat ikusten dut-eta ziegako atera hurbiltzen.

Hitz egin dit, tonu aspergarrian, «*tienes visita, ¡levanta!*», esanez. Ondo entzun al dut? Norbaitek ikusi nahi al nau? Hasiera batean nire irudimena izan dela pentsatu badut ere, berriro altxatzeko esan didanean, sinetsi egin dut. Zutik jartzea kostatu zait baina hemen naiz, berriro korridore luze honetan. Betiereko bidea egin zait harainokoa, ia buruak leher egin dit, ez baitut ez familiarik ez lagunik Euskal Herrian; ez da nitaz arduratuko den inor ere kuartel honetatik at.

Heldu naiz gela berrira, bista kristalak lausotzen didan arren, badakit emakume bat ageri dela bestaldean, baina ez naiz ahoa irekitzeko gai. Bere burua aurkeztu du, eta lehenagorik ahul banengoen, bere begiradak ia konorterik gabe utzi nau. Ganoraz pentsatzeak denbora eramanez didan arren, Mikel edo *Miguel* ergelaren emaztea dela uste dut. Badirudi leloa etxetik ikasia ekarri duela. Honela diost andereak: «Borroka dezagun merezi dugun hori, egin irribarre, borrokatzera goaz, eta borrokatzen badugu, irabazi egingo dugu!». Txunditurik utzi nau, ez dut ezer ulertzen, norbaitek azalduko al dit? Ondoren hobeto azaltzea lortu du; asko laburtu izan behar du, bisita-epea hain da laburra... Baina, tira, antza denez, bere gizona ez da pelikuletako gizon perfektua, ez da horra hurbildu ere egiten. Mirenek zuzenbide-ikasketak egin zituen (Miren da aurrean dudanez emakumea, badaezpada). Beraz baliteke hemendik irteten lagundu ahal izatea, nahiz eta gizonak erraz utziko ez dion. Ezin izan dit gehiagorik esan, denbora agortu baita,

dirudienez. Berriz *kaiolara* iritsi bezain laster, lur jota geratu naiz.

Zertara dator mugimendu hau? Zaratok beste zeldaren batetik etorriko ahal dira! Ezinezkoa da, begiak zabaldu bezain pronto itsutu egin naiz, eta gauza bera pasatu zaie nirekin dauden kideei. Errepidean barrena gaude, horrexek azaltzen du mugimendua zein motorren eta klaxonen zarata. Ez dut ezer ulertzen, berriz ere. Ez dakit zein momentutan iritsi naizen furgoneta honetara, eta are gutxiago nora noan nire kideekin batean. Bat-batean abiadura jaisten hasi da, iskanbilak berriz gora egin du, dedukzioz esango nuke hiriren baten erdigunean sartuta gaudela edo, baina ez naiz leihora iristen kanpoaldera begiratu ahal izateko. Beldurra guztion aurpegietan da nabarmen; «izango ez da, ba?»», galdetu diot neure buruari. Itxura denez, gauza asko daukat oraindik jakiteko, eta horietako lehenengoaz beherantz begiratzean ohartu naiz. Ez nago odolez estalita, garbi nago, arropa garbiak ditud, baina ez dira neureak; egia esanda, eskertzen dut odolez blai ez dauden kulero batzuk aldean izatea. Burua korapilatuago egin zait zeinen itxuroso goazen jabetzeaz. Eskerrak halako batean gelditu egin garela, pentsatzen jarraituz gero buruak eztanda egingo zidan eta.

Orain nora iritsi garen antzeman beharra dago, eta giroan urduritasuna da nabari. Banan-banan jaitsi gara polizia-furgoitik, eta nola ez, nik izan behar lehena. Bi *pikoletok* oratu didate eta etxe orratzen artetik abiatu gara; ez naiz inoiz egon

baina honek Madril izan behar du ezinbestean. Arraroa da, oso, egoera, espaloia hutsik dago, guretzat zarratuta balego bezala. Halako batean eraikin sendo bat nire aurrean, eta harrigarriena, atean hainbat eta hainbat kamerari zein kazetari. Hori bai ikuskizuna! Ez dakit nik, Madrilen nago bi guardia zibilek oraturik, ez daukat ezer berezirik. Zerbait garrantzitsua gertatu delakoan nago; politikariren bat edo beste, agian. Bada, ez, antza ez, piztu dute telebista unetxo batez, eta bai, neu naiz kazetari eta kamerari guztien artean korridorea zeharkatzen dagoen emakumea, Auzitegi Nazionalako sarreran dauden eskaileretatik gora. Zer arraio da hau?! Egun pare batean Bilboko kale-izkina batetik Madrilgo Auzitegi Nazionalera salto egin dut. Terrorista naiz, ala? Hamaikagarren aldiz diodan arren, orain bai ez dudala ezer ulertzen: epaile baten aurrean eseri naute eskuburdinez loturik nagoelarik. Burua makurtuta nago, eta gizon batek mikrofonoa nire altuerara moldatu du. Fiskal guztiak beraien lekuetan daude, ezkerraldean. Eskuinaldea, aldiz, hutsik dago; gezurra, iritsi berria den Miren esertzera baitoa.

Epaileak lehen hitzak ahoskatu eta burua goratuz berari begietara begiratzeko agindu dit. Ezin dut sinetsi, Mikelen, barkatu, *Miguelen* aurpegia du. Begirada ezkerrera bota dut, instintiboki. Ez, mesedez ez. Fiskal guztiek ere aurpegi bera dute. Berriz instintiboki, oraingo honetan atzera, guardiek eta polizia nazionalak okupatzen duten tokira. Guztiz sinesgaitza da, zergatik dira denak *Miguel*?

Oihu egin dut, oihuarekin batera gorroto, min eta pisu dena gainetik kenduz. Auzitegi Nazionalean burrunba eragin dut. Baina zerk ekarri dit eserleku honetan epaitua izatera? Eta batez ere, non bukatuko dut? Oihu besterik ez dut egin nahi, oihu, arima urratu arte, isiltasunaren ozenez. Gure egiak ere haienak bezainbeste balio dezake.